



ORIOKO UDALERRIKO LURPEKO EDUKIONTZIAK MANTENTZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea, baldintza-orri honetako I. eranskinean jasotako Orioko udalerriko lurpeko edukiontzia mantentzeko zerbitzua ematea da.

Zerbitzuaren modalitatea mantentze prebentiboa eta zuzenketakoa izango da.

Kontratatu behar den zerbitzuaren helburua lurpeko edukiontzia ahalik eta egoera onenean mantentzea da, hain zuzen, horien zati eta elementuen kontserbazio egoera onena lortzeko eta horien funtzionamendu jarraitu eta eraginkorra bermatzeko, matxuren ondorioz gerta daitezkeen etenaldiak minimora eramanez eta erabiltzaile eta zabor bilketako langileen segurtasuna ziurtatuz.

JARDUKETA ESPARRUA

Kontratazio honen gai diren edukiontzia agiri honetako I. eranskinean jasotzen dira.

Jarduketa esparrua, mantentze prebentiboari dagokionez, ekipo guztiei eragingo die eta gutxienez, plegu honetako II. eranskinean jasotako lanak barne hartuko ditu.

ARAUDIA BETETZEA

Kontratu honetatik ondorioztatzen diren prestazio guztiak garatzeko, derrigorrean bete beharko dira egungo araudi teknikoa, araudi tekniko-legala eta segurtasun eta higiearen araudia, ekipoen ezaugarriak direla-eta aplikagarri gerta daitezkeen bestelako guztiekin batera, horien artean baitira honakoak:

- Behe Tentsioaren Erregelamendu Elektronikoa.
- Arau teknologikoak.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL MANTENIMIENTO DE LOS CONTENEDORES SOTERRADOS DEL MUNICIPIO DE ORIO

OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato será el servicio de mantenimiento de los contenedores soterrados existentes en el municipio de Orio y que se relacionan en el Anexo I de este pliego.

La modalidad del servicio será la de mantenimiento preventivo y correctivo.

El servicio a contratar tiene por finalidad el mantenimiento de los contenedores para conseguir el mejor estado de conservación de las partes y elementos componentes y asegurar el funcionamiento continuo y eficaz de los mismos, minimizando los posibles paros como consecuencia de averías y garantizando la seguridad de los usuarios y trabajadores de recogida de residuos.

ÁMBITO DE ACTUACIÓN

Los contenedores a mantener objeto de esta contratación vienen definidos en el Anexo I de este pliego.

El ámbito de actuación en cuanto al mantenimiento preventivo se extenderá a todo los equipos e incluirá como mínimo las tareas recogidas en el Anexo II de este pliego.

CUMPLIMIENTO DE LA REGLAMENTACIÓN

En el desarrollo de todas las prestaciones derivadas de este contrato, será de obligado cumplimiento toda la actual normativa de carácter técnico, técnico-legal y de seguridad e higiene, así como toda la que pueda ser de aplicación por las características de los contenedores:

- Reglamento Electrónico para Baja tensión.
- Normas tecnológicas.



- EITE.

MANTENTZE PRESTAZIOAK

Enpresa adjudikaziodunak, bere ardurapean, eta I. eranskinean definitzen diren edukiontzi irletan, oro har, prestazio hauek gauzatuko ditu:

- 24 orduko zerbitzua
- Mantentze prebentibo sistematikoa
- Mantentze prebentibo baldintzazkoa eta zuzenketakoa
- Ohiko mantentze lanetarako behar diren kontsumigarrien hornidura
- Zuzenketako mantentzerako behar diren material eta gai txikiak.

24 ORDUKO ZERBITZUA

Enpresa adjudikaziodunak bermatu egin behar du matxura edo funtzionamendu okerra gertatuz gero esku hartzea, uneoro, larunbat, igande eta jaiegunak barne. Horretarako, 24 orduko arreta zerbitzu bat antolatuko beharko du.

Matxura 24 ordutako gehieneko epean konpondu beharko da, abisu formala jasotzen denetik kontatzen hasita.

Konponketa oso zaila edo garrantzi handikoa bada, edota konponketaren kostuak mantentze-lan normalaren barruko kostuak baino handiagoak direnean, aurrekontua aurkeztu beharko zaio Udalari, hark aztertu eta onartu dezan.

MANTENTZE PREBENTIBO SISTEMATIKOA

Mantentze prebentibo bost areatan egingo da; hau da, lurpeko edukiontzien sistemaren bost elementu nagusiei dagozkien areatan:

Isurtzeko buzoia mantentzeko prozedura

Mantentze-sistema honen bidez ziurtatuko dugu

- RITE.

PRESTACIONES DE MANTENIMIENTO

La empresa adjudicataria realizará bajo su responsabilidad, sobre el conjunto de las islas de contenedores definidas en el Anexo I, las prestaciones siguientes:

- Servicio 24 horas
- El mantenimiento preventivo sistemático
- El mantenimiento preventivo condicional y correctivo
- El suministro de consumibles necesarios para el mantenimiento corriente
- El suministro de materiales de pequeña entidad del mantenimiento correctivo.

SERVICIO DE 24 HORAS

La empresa adjudicataria debe garantizar las intervenciones, en caso de avería o de disfuncionamiento, de forma permanente, incluidos los sábados, domingos y festivos, para lo cual organizará un servicio de atención de 24 horas.

La avería deberá ser reparada en un plazo máximo de 24h desde el aviso formal.

En caso de que la gravedad, complejidad o el costo de la reparación superen el costo incluido dentro del mantenimiento correctivo normal, se deberá presentar el presupuesto de reparación para su estudio y aprobación al ayuntamiento de Orio.

MANTENIMIENTO PREVENTIVO SISTEMATICO

Este mantenimiento preventivo se divide en las cinco áreas fundamentales del equipo soterrado relacionadas con los cinco elementos más importantes del equipo:

Procedimiento de mantenimiento de los buzones de vertido.



buzoiak itxura onean egotea eta ondo funtzionatzea. Horretarako, cheking-list-ean adierazten den bezala, hilero ikuskatuko dira, kanpoko itxura egiaztatzeko; kartelak ondatuta badaude, berritzeko; pintura-ukituak emateko eta garbitzeko. Urtero ikuskatuko da buzoiaren zarataren kontrako juntura; eta, beharrezko bada, aldatu egingo da.

Ekipoen maniobra orokorra mantentzeko prozedura

Ekipoak igotzeko eta jaisteko maniobra ondo egiten duen ikuskatuko da, aurrerago matxura larriagoak sor ditzakeen kalteren bat ba ote dagoen detektatzeko. Maniobra hori aprobetxatuko da zuloa garbitzeko, estalkian instalatuta dagoen tranpailuaren bidez; era berean, segurtasun-neurri osagarriak ere ondo funtzionatzen ari direla ziurtatuko da. Udal garbiketa-zerbitzuek egingo dute garbiketa hori, mantentze-lanen arduradunekin koordinatuta.

Talde hidraulikoa mantentzeko prozedura

Hau da ekipoak ondo funtzionatzea ziurtatzeko prozedurarik garrantzizkoena. Lau hilabetez behin kontrolatu behar da deposituko olioaren maila. Sei hilabetez behin kontrolatu behar da deposituaren hodiko iragazkia ataskatuta dagoen ala ez eta olioaren zenbateraino dagoen kutsatuta. Urtero, edo 600-800 ordutan funtzionatzen egon eta gero, deposituaren barruko alde garbitu behar da, eta olioaren eta xurgapen-iragazkia aldatu. Ekipoa asko erabiltzen denean, aldaketen arteko tartea laburragoa izango da. Urtero ikuskatu beharko da elektro-balbulen eta pieza gehigarri guztien konexioak ondo dauden. Elektro-balbuletan eta sandwich erako balbuletan juntura torikoak aldatzen badira, eta ekipoak zentral hidraulikoa badauka, katalogoko balbula bakoitzarentzat espezifikoak den aldaketa-kit egokia erabili beharko da.

Armairu elektrikoa mantentzeko prozedura

Mediante esta sistemática de mantenimiento conservaremos el perfecto estado estético y de funcionalidad de los buzones. Para ello y tal como se indica en la Chekin-List se revisará mensualmente con el fin de comprobar su aspecto visual, reponer la cartelería si estuviera deteriorada, realizar retoques de pintura y limpieza de los mismos. Anualmente, se revisará, y repondrá si procede, la junta anti ruido de los mismos.

Procedimiento de mantenimiento de la maniobra general de los equipos.

Se comprobará la correcta maniobra de subida y bajada con el fin de poder detectar alguna anomalía que supusiera averías de mayor envergadura en fases posteriores. Se aprovechará esta maniobra para la limpieza del foso a través de la trampilla instalada en la tapa así como para asegurarnos del correcto funcionamiento de las medidas auxiliares de seguridad existentes. La limpieza se realizará por los servicios municipales de limpieza, de manera coordinada con las labores de mantenimiento.

Procedimiento de mantenimiento del grupo hidráulico.

Se trata del procedimiento más importante de cara a asegurarnos el correcto comportamiento del equipo. Se debe controlar cuatrimestralmente el nivel de aceite en el depósito. Semestralmente, se debe controlar el grado de atascado de filtro en la tubería del depósito y el grado de contaminación del aceite en general. Anualmente, o cada 600-800 horas de funcionamiento, hay que limpiar el interior del depósito y cambiar aceite y filtro de aspiración. El intervalo entre los cambios será más corto para condiciones severas de empleo. Anualmente, verificar el estado de las conexiones de las electro-válvulas y de todos los accesorios. En caso de sustituirse las juntas tóricas en las electro-válvulas y válvulas sandwich, emplear los kits de recambio específicos para cada una de las válvulas del catálogo, en el caso de que el equipo disponga de central hidráulica.



Armairu elektrikoak kontrolatzen du ekipoaren maniobra guztia eta, beraz, elementu garrantzizkoenetako bat da. Ikuskatu behar da ea maniobra ondo egiten den bai urrutiko kontrola erabiliz eta bai aginte-paneleko konmutadorea erabiliz. Ikuskatu behar da bai antena eta bai hargailua, seinalea ondo emititu eta jasotzen dela eta interferentziarik ez dagoela ziurtatzeko. Ikuskatu behar dira igoera eta jaitsiera erregulatzen duten karrera-bukaerak eta baita segurtasun-perimetroak edota argi birakaria erregulatzen dituztenak. Lau hilabetez behin ikuskatu behar da motor elektrikoaren konexio elektrikoak ondo dauden eta, ekipoak kuadro elektrikoa baldin badauka, horren sistema guztiek ondo funtzionatzen duten.

Enpresa adjudikaziodunak egingo ditu mantentze prebentibo sistematikoari dagozkion egin beharreko inbertsio eta ikuskatze guztiak, bai indarrean dauden arauak ezartzen dituztenak eta bai fabrikatzaileen espezifikazioengatik edo erabileraren intentsitateagatik egin beharrekotzat jotzen direnak.

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko neurriak hartuko ditu, mantentze-lan horiek ahalik eta gutxien eragin dezaten erabiltzaileen martxa normalean.

Mantentze prebentiboak, gutxienez, baldintzarri honetako 2. eranskinean zerrendatutako mantentze-lanak barne hartuko ditu.

MANTENTZE PREBENTIBO BALDINTZAZKOA ETA ZUZENKETAKOA

Prebentzioko mantentze baldintzazkoa batez ere instalazioen maneia eta zaintzetik ondorioztatzen diren behaketetatik abiatzen da.

Procedimiento de mantenimiento del armario eléctrico.

El armario eléctrico es el que controla la maniobra de mando y control del equipo, y por lo tanto otro de los elementos importantes. Comprobaremos que la maniobra se realiza tanto en modo remoto con el mando a distancia, como en modo local mediante el conmutador que se encuentra en el panel de mando. Se revisará tanto la antena como los receptores para asegurarnos que la emisión- recepción de la señal es la correcta y no hay lugar a interferencias. Comprobaremos los finales de carrera que regulan tanto la subida como bajada, así como los que regulan los perímetros de seguridad o la luz rotativa. Se debe verificar cuatrimestralmente el estado de las conexiones eléctricas del motor eléctrico y de todos los accesorios en el caso que el equipo disponga de cuadro eléctrico.

La empresa adjudicataria realizará todas las inversiones y comprobaciones correspondientes al mantenimiento preventivo sistemático que sean necesarias realizar, bien por estar así dispuesto en la normativa vigente o bien por resultar aconsejables en función de las características de los materiales en relación a la intensidad de uso, o en función de las propias especificaciones de los fabricantes.

La empresa adjudicataria adoptará cuantas medidas sean necesarias para que dichas operaciones afecten lo mínimo posible el funcionamiento habitual de los edificios y de los usuarios.

El mantenimiento preventivo incluirá como mínimo las gamas de mantenimiento indicadas en el Anexo II de este pliego.

EL MANTENIMIENTO PREVENTIVO CONDICIONAL Y CORRECTIVO

El mantenimiento preventivo condicional interviene principalmente a partir de las observaciones derivadas del mantenimiento preventivo.



Behaketen maiztasuna eta izaera, parametroak eta erabakitze irizpideak enpresa adjudikaziodunaren erantzukizun eta ekimena dira; administrazio bakoitzean ardura duten zerbitzuekin komunikatuta egongo da beti enpresa, eta administrazioa bera izango da egin beharreko erreformei oniritzia emango diena.

Enpresa adjudikaziodunak zuzenketako mantentze lanak 24 orduko epean egingo ditu, eta beharrezko neurri guztiak hartuko ditu lan horiek eraikinen funtzionamenduan eta erabiltzaileengan ahalik eta gutxien eragiteko; egiten diren lan guztiak eman beharko dizkie aditzera administrazioaren zerbitzu teknikoei.

Kontratu honen barruan mantentze zuzentzaileko hileko hiru esku-hartze arte sartzen dira.

Egiturazko elementuak matxuratu direlako aldatzea ez dago sartuta mantentze zuzentzaileko zerbitzuan. Honako hauek jotzen dira egiturazko elementutzat:

- Talde hidraulikoa Motorra eta ponpa
- Mahai hidraulikoa
- Estalkia
- Armairu elektriko osoa
- Buzoia
- Estalki altxagarria

Baldintza-orri honetan jasotakoa baino haragoko egiturazko materialak eta esku-lanak fakturatzeko, faktura hori eskaintza nagusiarekin batera erantsi beharko den prezio unitarioen proposamenaren arabera egingo da.

Kontratuaren kontrolerako eta orekarako, kontsideratzen da prezioaren %70 mantentze prebentiboari dagokiola; eta %30, berriz, mantentze zuzentzaileari.

Entitateak instalazioetan aldaketak edo hobekuntzak egitea eskatu ahal izango dio mantentze lanak egiten dituen enpresari. Kasu

La frecuencia y naturaleza de las observaciones, los parámetros y criterios de decisión son de la responsabilidad e iniciativa de la empresa adjudicataria, estando siempre en comunicación con los servicios técnicos municipales que serán los que den el visto bueno a esas reformas.

La empresa adjudicataria realizará las intervenciones de mantenimiento correctivo en un plazo de 24 horas y tomará todas las medidas para que dichas operaciones afecten lo mínimo posible al funcionamiento normal de contenedores y el servicio de recogida de residuos urbanos debiendo informar a los servicios técnicos municipales de cuantas operaciones se realicen.

Se incluyen hasta 3 intervenciones mensuales de mantenimiento correctivo dentro del alcance del presente contrato.

La sustitución por avería de los elementos estructurales, no estará incluida en el servicio correctivo. A estos efectos, se consideran elementos estructurales los siguientes elementos:

- Grupo hidráulico: Motor y Bomba
- Mesa hidráulica
- Tapa
- Armario eléctrico completo
- Buzón
- Tapa elevable

El material estructural y la mano de obra que exceda de la recogida en el presente pliego serán facturados conforme a la propuesta de precios unitarios que deberá acompañar a la oferta principal.

Se considera a efectos de control y equilibrio del contrato que el 70% del precio corresponde al mantenimiento preventivo y el 30% restante al correctivo.

El Ayuntamiento podrá solicitar a la empresa mantenedora la realización de modificaciones o mejoras de los contenedores. En este caso, los



horretan, eskulanaren eta materialen prezioak ezin izango dira kontratuan finkatuak baino handiagoak izan. Entitateak kontratu honen zatitza egin ahal izango ditu lan hauek, edo aparteko kontratazio espediente baten bidez lizitaziora atera.

OHIKO MANTENTZE LANETARAKO BEHAR DIREN KONTSUMIGARRIEN HORNIDURA

Atal honetan ezartzen diren mantentze prestazioak gauzatzeko, enpresa adjudikaziodunak bermatu egin behar du kontsumigarrien eta osagai mekaniko eta elektriko txikien hornidura; horien artean honakoak daude:

- Olioak, koipeak, zapiak
- Desugertzaileak, kaltzio kentzaileak, deshidratatzaileak
- Tefloia, zinta itsasgarria
- Pilotuak, fusibleak
- Uhalak, iragazkiak (kontsumigarriak eta airea)
- Kontratu honen xedea betetzeko beharrezko den beste edozein.

MANTENTZE LANEN DOKUMENTUAK

Enpresa adjudikaziodunak egunean mantenduko du, eraikin bakoitzari dagokionez, mantentze lanen liburua, indarrean dagoen legediarekin bat. Liburu horretan honakoak jaso beharko dira:

- Prebentzioko mantentze sistematikorako bisitak.
- Prebentzioko esku hartze baldintzazkoak eta konpontzeak.
- Bere ekimenez edo entitatearen ekimenez egindako aldaketak eta lanak.
- Egindako neurketen eta entsegu edo proben emaitza.
-

Operazio bakoitzari dagokionez hau jasoko da:

- Data.
- Operazio mota.
- Ordezkatutako piezak.

precios de mano de obra y materiales no podrán ser superiores a los establecidos en el contrato. La entidad podrá ejecutar estos trabajos como parte de este contrato o licitarlos en un expediente de contratación separado.

SUMINISTRO DE CONSUMIBLES NECESARIOS PARA EL MANTENIMIENTO CORRIENTE

Para el desarrollo de las prestaciones de mantenimiento que se establecen en este capítulo, la empresa adjudicataria debe garantizar el suministro de los diversos consumibles y pequeños componentes mecánicos y eléctricos, tales como:

- Aceites, grasas, trapos
- Productos decapante, desincrustante, deshidratante
- Teflón, cinta adhesiva
- Pilotos, fusibles
- Correas, filtros, (consumibles y aire)
- Cualquier otro que fuere necesario para dar cumplimiento al objeto del contrato.

DOCUMENTOS DE MANTENIMIENTO

La empresa adjudicataria mantendrá al día, para cada isla de contenedores, un libro de mantenimiento en el que deberán de reflejarse las siguientes incidencias:

- Las visitas de mantenimiento preventivo sistemático.
- Las intervenciones preventivas condicionales y correctivas.
- Las modificaciones y trabajos realizados a su iniciativa o de la entidad.
- El resultado de las mediciones, pruebas o ensayos realizados.

Para cada operación se mencionarán:

- La fecha.
- El tipo de operación.
- Las sustituciones de piezas realizadas.



- Beharrezko oharra.
- Lanak egin dituen langilearen izena eta prestakuntza maila.

Ezaugarri teknikoen agiri honen gai diren instalazioei buruzko mantentze lanen liburuak eta jarraipen egunkariak entitatearen eskura egongo dira, uneoro, kontsultarako.

MATXURAK KONPONTZEKO ARAUAK

Azterketa eta berrikuspenen bidez edo entitateak emandako abisuaz aurkitzen diren matxurak, mantentze zerbitzuaren barruan sartuak eta kontratu honetan jaso ez diren elementuak edo materialak ordezkatzeko behar dutenak, entitatean dagokion zerbitzu teknikoari emango zaizkio aditzera, dagokien balorazioarekin batera. Konpontze lanetarako baimena lortu ondoren, konpontze lanak 24 orduko epean hasiko dira, non eta hirugarrenen edo instalazioaren segurtasun arrazoiak tarteko edo instalazioak zerbitzua ematen dien jardueren funtzionamendua bermatzeko ezinbestekoa zaion konponketari unean bertan ekin behar. Eskulanaren eta konponketarako materialen kostua prezio unitarioez eta adjudikazioan PSPren gainean jasotako deskontuez fakturatuko da.

Enpresa adjudikaziodunak urtebetez bermatuko ditu egiten dituen lan guztiak, bai konpontze lanak, bai erreforma lanak bai instalazio berriak egitekoak. Denbora horretan zehar bere kontura egin beharko ditu, eta entitatearentzako inolako kargurik gabe, funtzionamendu egokirako beharrezko lan guztiak.

Enpresa adjudikaziodunak laneko eremuetatik kendu eta jaso egingo ditu bai material kaltetu edo akastunak bai horien bilgarriak.

ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN PERTSONALAREN PRESTAKUNTZA

Enpresa adjudikaziodunak, uneoro, beharrezko langileak eduki beharko ditu, kopuruz eta

- Las observaciones pertinentes.
- Nombre y cualificación del operario.

Los libros de mantenimiento y los diarios de seguimiento del conjunto de las instalaciones objeto del presente pliego de condiciones técnicas se entregarán anualmente una copia en la oficina técnica del ayuntamiento de Orio.

NORMAS PARA LA REPARACIÓN DE AVERÍAS

Las averías localizadas a través de las inspecciones y revisiones o por aviso del ayuntamiento, incluidas dentro del servicio de mantenimiento y que exijan la sustitución de elementos o materiales no incluidos en el presente contrato serán notificados al servicio técnico correspondiente de la entidad, con su valoración correspondiente. Una vez obtenido el consentimiento de realización se procederá al comienzo de la reparación correspondiente en el plazo de 24 horas, siempre que por razones de seguridad de terceros de la instalación o por garantizar el funcionamiento de las actividades a las que sirve la instalación no sea imprescindible actuar de forma inmediata. El coste de la mano de obra y materiales de las reparaciones se facturarán a los precios unitarios y descuentos sobre PVP de adjudicación.

La empresa adjudicataria garantizará por un periodo de un año, todos los trabajos que realice, bien sea de reparación, reforma o nueva instalación, debiendo realizar por su cuenta y sin cargo alguno para la entidad todas las labores necesarias para su correcto funcionamiento, durante ese periodo.

La empresa adjudicataria retirará de las zonas de trabajo, tanto los materiales inservibles y defectuosos como sus embalajes.

CUALIFICACIÓN DE PERSONAL DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

La empresa adjudicataria deberá disponer en todo momento del personal necesario en número



ezaugarri teknikoen agiri honetan zehazten diren lan guztiak egiteko moduan.

Entitate kontratatzaileak ez du inolako harreman juridikorik, ez lanekorik ez beste inolakorik, enpresa adjudikazioduneko pertsonalarekin, ez kontratuaren indarraldian zehar ez kontratua amaitzen denean.

Enpresa adjudikaziodunak ezingo du langile falta aitzakia jarri, zerbitzu kontratuak eteteko edo atzeratzeko. Uneoro eduki beharko du zerbitzu horiek gauzatzeko beharrezko guztia, eta horrek ez du inolako eraginik izango hileko kuota finkoaren gainean.

Mantentze lanak egiteko ardura duten langileek eskatzen den prestakuntza izan beharko dute, eta esperientzia aitortua besteak beste instalazio hauek manipulatzeko:

- Behe tentsioko elektrizitatea
- Mekanika

Informazio gisa enpresa adjudikaziodunak, kontratu eratorria sinatu ondorengo hamabost eguneko epean eta lanean hasi aurretik, zerrenda bat aurkeztuko du, horretan jasoz entitate bakoitzaren eraikinen barnean uneren batean lanen bat egin dezaketen langileak, horietako bakoitzaren NAN, kategoria, antzinatasuna eta kontratu mota adierazita.

LANGILEEN SEGURTASUNA

Enpresa adjudikaziodunak behar bezala aseguraturik eduki beharko ditu bere ardurapeko langile guztiak, Lan Zuzenbideari eta Gizarte Segurantzari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Enpresa adjudikaziodunak behar adina babes ekipo emango dizkie bere langileei, bai ekipo indibidualak bai kolektiboak, langileak seguru egon daitezen bere jardueratik ondorioztatzen diren arriskuen aurrean.

Enpresa adjudikaziodunak zaindu egin beharko

y condiciones para efectuar todos los trabajos especificados en el presente pliego de prescripciones técnicas.

La entidad contratante no tendrá relación jurídica ni laboral ni de otra índole con el personal de la empresa adjudicataria durante el plazo de vigencia del contrato ni al término del mismo.

La empresa adjudicataria no podrá pretextar la falta de personal para suspender o retrasar los servicios contratados debiendo disponer en todo momento de lo necesario para su ejecución sin repercusión alguna sobre la cuota mensual fija.

El personal encargado de realizar labores de mantenimiento deberá tener la cualificación requerida y reconocida experiencia en la manipulación entre otras, de las siguientes instalaciones:

- Electricidad en Baja Tensión
- Mecánica

La empresa adjudicataria, a título informativo, en el plazo de quince días posteriores a la firma del contrato derivado y previamente al inicio de los trabajos, presentará la relación de personal, con el DNI, categoría, antigüedad y tipo de contrato de cada operario/a, que en algún momento pueda realizar algún trabajo dentro de los edificios de cada entidad.

SEGURIDAD DEL PERSONAL

La empresa adjudicataria deberá de tener debidamente asegurado a todo el personal a su cargo, según la vigente normativa sobre Derecho del Trabajo y Seguridad Social.

La empresa adjudicataria dotará a su personal de tantos equipos de protección individual y colectivos que sean necesarios, a fin de lograr la seguridad de los trabajadores frente a los riesgos derivados de su actividad.

La empresa adjudicataria deberá observar el



ORIOKUDALA



du Laneko Segurtasun eta Higienearen arloan indarrean dauden xedapenak zorrotz betetzen direla, beharrezko zerbitzu medikuak bezalaxe.

Orio, 2016eko urtarrila.

Orioko Udaleko bulego teknikoa

estricto cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia de Seguridad e Higiene en el trabajo, así como los Servicios médicos necesarios.

En Orio, enero de 2016.

Oficina Técnica del ayuntamiento de Orio

1. ERANSKINA/ ANEXO I

**KONTRATUAREN BARRUAN DAUDEN LURPERATUTAKO EDUKIONTZIEN ETA HORIEN
EZAUGARRIEN ZERREDA**

RELACIÓN DE CONTENEDORES Y CARACTERÍSTICAS DE LOS MISMOS OBJETO DEL CONTRATO

2. ERANSKINA/ ANEXO II

GUTXIENeko MANTENTZE PREBENTIBOA/ MANTENIMIENTO PREVENTIVO MÍNIMO